



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita zortzian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

2.- OSASUN PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIOA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saiaren eginkizuna osasungintza sistema kudeatzea eta Euskadin bizi diren pertsonen osasuna babestea da. Gaur egungo ingurumarian osasuna babesteko eta zaintzeko hainbat neurri betetzea derrigorrezkotzat j tzen dugu:

1.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio berma dezala urte osoan, baita udan ere, herrialde honetako osasun-sistema publikoak eskaintzen duen asistentzia.

2.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio urtero prestakuntza -eskaintza egiaztatu guztia eskaini dezala, datozen urteotan Osakidetzako profesionalen arteko belaunald i-txandari erantzun ahal izateko.

Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio prestakuntza amaitzean lan-kontratu bat eskaini dezala, kalitatezko enpleguaren alde egiten duen apustuaren parametroen barruan, Euskadiko osasun arretaren sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei.

3.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta, beharrezkoa den neurrian, handitzeko politikarekin jarrai dezala, XII. legegintzaldirako Gobemu Programako konpromisoak betetzeko, eta, zentzu horretan, Lehen Mailako Arretari dagokionez, plaza hutsen eskaintzari eutsi eta hura zabal dezala, plaza horiek bete daitezen bultzatzeko . Era berean, Lehen Mailako Arretako Estrategian (fisioterapia, farmazia komunitarioa) aurreikusitako profil profesional berriak ezartzen jarraituko du, osasunaren zaintza integrala hobetzeko apustuarekin bat etorritz.

4.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio amai ditzala dagoeneko onartuta eta deitura dauden lanen deialdi publikoen prozesuak, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta, aldi berean, lanean jarrai dezala hurrengo urteko lan-eskaintza publikoa k eta deialdiak onartzeko, behin behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkorra eta kalitatekoa buJtzatzeko konpromisoarekin bar etorritz.

5. Azkenik, Tolosako Udalak Osasun sailari eskatzen dio eskualdean titulartasun publikoko ospitale publikoa izan bitartean , Inviza-rekin egun dagoen



TOLOSAKO
UDALA

2022IPLE0008

hitzarmenaren jarraipena egin dezala, Tolosaldeako herritarrok Asuncion Klinikaren bidez osasun arrela egokia izateko: publikoa, kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa.

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Maria Villanueva Telleria

Aurkako botoak: Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturata), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak **gehiengoz onartu du** EAJ-PNV eta PSE-PSOEek aurkeztutako mozioa.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenerekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0008-eaj psoe osakidetza/eaj psoe osakidetza ()